

PASAIA / Haurren marrazki lehiaketak badiu irabazleak

Liburutegiak antolatutako XLVI. marrazki txapelketaren irabazleek hilaren 18an jasoko dituzte sariak

ERIK GARTZIA

Pasaia XLVI. Marrazki eta Pintura Lehiaketaren irabazleak nor diren jakinarazi dute. Erabakitze lan handia hartu behar izan dute. Izan ere, herriko ikastetxe guztietako ikasleek hartu dute parte eta guztira 1012 lan aurkeztu dituzte.

Liburutegiak antolatutako lehiaketaren helburua Gabonak modu plastikoan islatzea da. Horretarako, lau eta hamalau urte bitarteko haurrei zabaldu zieten deialdia. Anunciata ikastetxeko 147 ikasle hartu dute parte, Karmengo Amako 210ek eta Pasaia- Lezo Lizeotik, berriz, 650 ikasle izan dira partu hartu dutenak. Herriko ikastetxeetakoak ez diren beste bost lan ere aurkeztu zituzten.

Pinturan eta marrazten adituak diren lagunek osatu dute epaimahaia. Gutxieneko kalitatea ez zuen lanik ez bazegoen, epaimahaikideek ez saritzeko eskumena zuten. Hala ere, ez dute horren beharrik izan. Are gehiago, maila guztietan accesit sari bat, gutxienez, banatu dute. A eta B mailen kasuan, bi izan dira banatu dituzten gisa horretako sariak.

Sari banaketa, hilaren 18an

Ondoko taulan dauden sari horiek guztiak abenduaren 18an banatuko dituzte Antxoko liburutegian. Ekitaldia arratsaldeko seietan hasiko da. Modu horretan bukatuko da Antxoko XLVI. Marrazki eta Pintura Lehiaketa. Sari banaketa jendaurrean izango da.